



IJITOEN AKORDIOA

AURREKARIAK

Euskal Herrian gure hezkuntza sistema antolatzea eskubidea eta beharra dugu, aldi berean. Eskubidea da, munduko gainontzeko nazioek bezalaxe, Euskal Herriak ere eskubidea duelako bere buruaren jabe izateko, baita hezkuntzaren alorrean ere; bere behar ekonomiko, sozial eta kulturei erantzun dion hezkuntza sistema antolatzeko eskubidea du. Eta beharra da, herritarren hezkuntza eskubideak bermatzeko, nahitaezkoa baita geure hezkuntza diseinu propioa egitea. Horrexegatik, ez dugu onartzen LOMCE edo Wert legea, eta gure herriak behar duen hezkuntza sistemaren alde lan egiteko konpromisoa berresten dugu.

Izan ere, guk geure hezkuntza sistema bat antolatu nahi dugu; baina hezkuntza eskubideetan oinarrituta, eta ez estatuaren botere hutsean. Guk hezkuntza arautzeko aukera izan nahi dugu, eredia aldatu nahi dugulako, hezkuntza beste modu batean arautu nahi dugulako. Hezkuntza euskalduna nahi dugu eta, gainera, hezkuntza euskaldun hori beste modu batean antolatu nahi dugu.

Ahalegin horren barruan, 2010ean, Orioko Independentisten foroak ORIO3TEN.HSN jardunaldiak antolatu zituen, herritik abiatuta, hezkuntza sistema propioa osatzeko bidean ekarpen xume bat egiteko asmotan. Jardunaldi haien ondorio nagusietako bat izan zen Orion badagoela herriko curriculuma sortzeko beharra eta borondatea. Guk bat egiten dugu proiektu horrekin, gure ustez, herriko curriculuma osatzea oso garrantzitsua baita bi ikuspegitatik: batetik, herriaren nortasuna eta ohiturek bizirik irautea nahi badugu, ezinbestekoa delako kapital hori hurrengo belaunaldiei transmititzea (horretarako, zehaztu beharra dago zer den oriotarrok konpartitzen duguna edota konpartitu nahi duguna); eta, bestetik, transmititzearekin batera, gure bizi ohiturak eraberritu eta garai berrietara egokitu behar ditugulako, betiere garbi edukiz gaur egungo oriotarrak beste katebegi bat baizik ez garela herri honen historian.

Hori guztia dela-eta, agiri hau sinatzen dugun eragile eta herritarrok honako hau

ADIERAZTEN DUGU

- Hasteko, euskal curriculumaren garrantzia azpimarratu nahi dugu; hau da, uste dugu Euskal Herri osorako baliagarria izango den erreferentzia kultural eta pedagogiko bat edukitzea garrantzi handikoa dela.

- Gure kultur ondarearen adierazpenik nabarmenena euskara da. Azken berrogei urteotan, bereziki, ahalegin handiak egin dira euskara ikasteko eta euskarazko irakaskuntza hedatzeko. Gauza bat da, ordea, euskarazko hezkuntza eta, bestea, hezkuntza euskalduna. Euskalduntzeko, euskara ezagutzeaz gain, euskal gizartean sortu edota egokitu diren kultur adierazpen nabarmenenak bereganatu behar ditu ikasleak. Horrekin batera, XXI. mendeko euskaldunak hezi nahi baditugu, euskaldun gaurkotuak behar ditugu, behar berriei egokituak eta aurrerapenetan txertatuak.

- Orioko curriculuma euskal curriculumaren logika berean ulertzen dugu. Herriko ondare kulturala definitzeko ikaragarriko balioa du; izan ere, herriko nortasunaren ikurrak



definitzearekin batera, herriaren biziraupena bermatzen ari baikara. Bide horretan Orioko curriculumuma euskal curriculumaren osagarri gisa ulertzen dugu, hari egindako ekarpen gisa, bat egiten baitugu euskal curriculumaren filosofia eta apustu estrategikoarekin.

- Herriko curriculumuma eraikitzeko, ezinbestekoak dira hezkuntza komunitate osoaren —eta, oro har, herritarren— gogoetak eta ekarpenak. Zeresan handia dauka herri osoak, azken finean oriotarron belaunaldi berrien heziketaz ari baikara. Horregatik, Orioko curriculumuma osatzeko egitasmoan behar-beharrezkotzat jotzen dugu hezkuntza, kultur eta gizarte eragile guztien parte hartzea, herritarrona.

Eta, ondorioz, honako hau

ADOSTEN DUGU

- 1.-** Orioko curriculumuma eraikuntza kolektiboa da; beraz, denon ardura, konpromisoa eta lana eskatzen du. Bide horretan nork bere hondar aletxoak jartzeko erabakia hartzen dugu, proiektuak dituen beharrianetara egokituz eta modu proaktiboan lan eginez.
- 2.-** Behin definizioaren fasea amaituta, Orioko curriculumuma batzar batean onartuko dugu, oriotarron oniritzia jaso dezan.
- 3.-** Herrian gauden hezkuntza eragileek Orioko curriculumuma aplikatzeko ardura hartzen dugu.
- 4.-** Udalak, Orioko curriculumak duen garrantziaz jabeturik, proiektu hau osatzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomiko zein teknikoak emateko ardura hartzen du.

Orion, 2013ko maiatzaren 4an.